

“Diamantearen Pasabidea”: Izotz-horma afrikar bihotzean

Datorren abuztuan, Ermuko bi gaztek oporrak Arikaren bihotzean igaroko dituzte, zehazkiago Kenian. Ez doaz inongo safari edo ehiztaldirik burutzeraz. Lurrean horietara joatearen arrazoiak Kenia Mendia (5.100 metro) igotzea besterik ez da, “Diamantearen Pasabidea” mitikotik hain zuzen ere.

Ez da mendizale hauek eta herriko beste batzuk lurralde urrunetara doazen lehenbiziko aldia, Ermuan abentura gose den jendea aspaldian mugitzen ari baita. Aurrean hiru garagardo ditugula, protagonistei, Miguel Angel Aguiar eta Juan Carlos Rivas, galdera sorta bat luzatuko diegu, abentura honetaz eta gure herriko zaletasun mendizalea noraino iristen den jakin nahian.



DROGETENITTURRI- ZER DA “DIAMANTEAREN PASABIDEA”?

Juancar eta Miguel- Mundu mailan ospe handiko igoera da. Kenia mendian kokatuta dago, Afrikako bihotzean bertan.

D.- NOIZ BURURATU ZITZAIZUEN MOTA HONETAKO IRTEERA BAT ANTOLATZEA?

J.e.M.- Egia esateko, betidanik izan dugu ideia hori buruan. Urte batzuk daramatzagu mendiko kirola praktikatzeko, baina beti Pirinioetan eta Alpeetan ibili gara, urrutira joatea garesti eta zailagoa delako. Horregatik

bururatu zitzaigun, hara joatea interesgarria eta merke samarra delako.

D.- KENIA MENDIAN EGOTEAZ GAIN, HERRI ETA KULTURA EZBERDINAK EZAGUTUKO DITUZUE.

J.e.M.- Horretan datza, hain zuzen, espedizioaren alderik interesgarriena. Azken finean izotz horma bat ari zara eskalatzen, Afrika erdian, hain bero handiarekin. Kulturaz gain, hori ere oso kontraste gogorra da. “Masai” lurraldea da, eta “Diamantearen Pasabidea” bi tontorren artean dago, masaiak buruzagi mistikotzat dituztenak.

D.- NOIZ PENTSATU ZENUTEN ESPEDIZIOAREN BAT KANPOAN EGITEA? BETIDANIK IZAN DUZUE HONAKO HAU BURUAN EDO BAZENUTEN BESTE AUKERARIK?

J.e.M.- Mendian ibiltzen hasten zarenetik liburuetan eta aldizkarietan milaka argazki ikusten dituzu, baina hau ikusitakoan harritu egiten zara, oso erakargarria eta interesgarria delako.

D.- NOLA ANTOLATU DUZUE IGOERA?

J.e.M.- Berez, mendia ez da oso altua (5.100 metro). Ingurune turistikotik urrun egotea da arazorik handiena. Hori dela-eta, bizpahiru egun hurbiltzeko eta gero beste 10 edo 15 igoera

QUETZAL

Opari denda
Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11

saiatzeko beharko ditugu. Gure helburua egun batean igo, bertan lo egin eta hurrengo egunean jaistea da.

D.- ALTITUDEA BAINO GEHIAGO ZAILTASUNAREN BILA ZABILTZATELA EMATEN DU; HORRELA DA?

J.e.M.- Egia esan, mendian ez dugu zailtasunik bilatzen, edertasuna baizik, eta guri oso espedizio polita eta interesgarria iruditzen zaigu.

D.- ZUEK BIKO BAKARRIK JOANGO ZARETE; EZ DA ARRISKUTSUA IZANGO?

J.e.M.- Oso igoera teknikoa da, eta mota honetako igoeretan askoz seguruagoa izaten da biren artean burutzea. Gainera, gustora bazaude, beste pertsona batekin nahikoa duzu. Derrigorrezkoa da barnekidetasun edo konpenetrazio ona edukitzea.

D.- ZER MOTAKO PRESTAKETA EGINDUZUE?

J.e.M.- Prestaketa bi arlotan banatzen da, bata teknikoa eta bestea fisikoa. Teknika denboraren poderioz lortzen da, beraz hori alde zuretik badaukazu. Arlo fisikoa larunbat gauetan Zubiaurren zehar trekking intentsiboak egiten lantzen dugu, ja, ja, ja!...

D.- MATERIAL ASKO ERAMANGO DUZUE; ZER MATERIAL MOTA? NOLA ANTOLATZEN ARI ZARETE HORI GUZTIA?

J.e.M.- 60 edo 100 kilo eramatea pentsatu dugu, nahaste handia guretzat, egingo dugun lehen espedizio gogorra izango baita. Materiala nahiko teknikoa izango da. Elikadurari dagokionez, hemendik elikagai bereziak, mendian erabiltzen direnak, eramango ditugu. Gainontzekoak han erosiko ditugu. Horrez gain, beharrezko sendagaiak ere hemengoak izango dira.

D.- BIDAIAREN FINANTZIAKETARI DAGOKIONEZ, NOLAKOA IZANGO DA?

J.e.M.- Esperientziak irakatsi digu zerbait egin nahi duzunean zure kabuz burutu behar duzula, horregatik nikien salmenta, "zubiing" eta eskalada ikastaroak antolatu ditugu. Horrekin bidaia

ordaintzeko dirua lortzeko asmoa dugu.

D.- ERMUKO JENDEAK ZUEN BIDAIAREN ETA HORRELAKO EKINTZETAN MURGILDUTA DAUDENEN BERRI DAUKALA USTE AL DUZUE?

J.e.M.- Ermuan horrelako bidaiak antolatzeaz gain, bestelako ekintzak antolatzen dira abentura mailan. Ez dugu gure ekintzen ospea bilatzen, bakarrik herrikoia izan daitezela, jendeak parte har dezala. Laguntza egon dadila horrelako ekintzak sortzeko.

D.- ERMUAN BADAGO MENDIRAKO ZALETASUNIK, BAINA ZER MAILATAN?

J.e.M.- Zaletasuna nahiko handia da; hortxe daukagu "Artarra" mendi taldea. Horrez gain, herri inguruetatik ibiltzen den jende asko dago, eta baita Pirinioetara eta Alpeetara hurbiltzen dena ere.

D.- ZUEN BIDAIA BEZALAKO ESPEDIZIOAK ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKE. NOLA KONTROLATZEN DA ARRISKU HORI?

J.e.M.- Teknika hartzeko beharrezkoa da oinarrizko ikastaro batzuk



"Espero dugu diapositiba asko ekartzea. Lagunei eta edonori erakusteko, ea herriko jendea horrelako mendi-ekintza gehiago antolatzera animatzen den".

egitea. Hasteko leku egokiena rokodromo bat izango litzateke; Ermuan zoritarrez ez daukagu, baina Udalak laister eraikitzea espero dugu.

Kaltxango AEEK Euskaltegiko Hobekuntza Taldea

Bar GREDOS

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

E I AKADEMIA
ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 38 24